

EUSKADIN PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA ETA AUTOERREGULAZIOKOA INPLEMENTATZEKO SAREAREN 5. BILERA (2018KO MARTXOAK 22)



EDUKIEN LABURPENA

Euskadin Publizitate eta Komunikazio ez sexistarako Kode Deontologikoa eta Autoerregulaziorikoa inplementatzeko sarearen 5. bilerako **ondorio nagusiak** aurkezten dira jarraian.

Bertaratutakoak:

- **Publizitate agentziak:** Mónica Navajas (Ad Hoc), Jose Felix Ruiz (Trupp-Euskadiko Publizitate Agentzien Elkarte), Peru Arrasate (Di-Da) eta Sonia Arnaiz eta Estibaliz Sedano (Bostnan-Bassai).
- **Komunikabideak:** Isabel Fuentenebro (EFE), Maite Asensio (Berria), Eloisa Santiago (Cope), Marian Parra (Eitb), Joxe Rojas (Tokikom), Beatriz Azpiri (Begitu Aldizkaria), Alfonso Garai (El Correo), Nekane Lauzirika (Kazetarien Elkargoa-Deia), Lourdes Pérez (Diario Vasco), Aloña Velasco eta Verónica Gómez (SER), Mainer Eizmendi eta Asier Aiestaran (Gara), Ángel López (Onda Vasca), Iruñe Elorriaga eta Gorka Acitores (Onda Cero), Javier Palacios (MBN), Jabier Onaindia (Bizkaia Irratia), Iñigo Fernández (Hiruka) eta Iñigo Goñi (Urumeako Kronika).
- **Emakunde:** Izaskun Landaia eta Ángel Rodríguez.

- **Begira Batzordea:** Pablo Vidal, Lucía Martínez eta Ilazki Mimenza.
- **Idazkaritza Teknikoa (Kualitate Lantaldia):** Itziar Cámara eta Diego Fernández.

Dokumentua honako atal hauetan antolatuta dago, bilerako gai zerrendari jarraikiz:

1. Ongietorria, aurkezpena eta jardunaldiaren helburuak.
2. 2018rako lan plangintza tematikoaren aurkezpena: kirol arloa publizitatean eta komunikazioan genero ikuspegitik.
3. 2018an zehar lan egingo duen talde operatiboaren aurkezpena.
4. Kirolak komunikabideetan duen tratamenduari eta kirol arloan oinarritutako publizitatea sortzeari buruzko hitzaldia: Clara Sainz de Baranda Andújar, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazio Saileko irakaslea.
5. I. tailerra: Adibideen eztabaidaren aurkezpena (Begirara iritsitako kexak).
6. II. tailerra: Jardunaldian egindako lanetik ateratako irakaspenak.
7. Jardunaldiaren itxiera. Eskerrak ematea eta hurrengo urratsak.

1. Ongietorria, aurkezpena eta jardunaldiaren helburuak

Izaskun Landaidek, Emakundeko –Emakumearen Euskal Erakundeko– Zuzendariak, pertsona guztien bertaratzea eta parte hartzea eskertu ditu, kirolarekin lotutako edukiekin lan egiten duten agentzietako eta komunikabideetako profesionalena bereziki, lehen aldia baitute Sarearen jardunaldi batean.

Zuzendariak adierazi du Sarearen bosgarren bilera honetan "kirolen" modalitate ezberdinetan (banaka zein taldean egiten direnak, profesionalizatuak nahiz amateurrak, federatuak zein eskola kirola) publizitate eta informazio tratamenduaren genero azterketan elkarrekin lan egiten saiatuko garela.

Kirol produktuekin edo zerbitzuekin zuzenean lotutako edukiak nahiz kirola edo kirolaren balioak salmentarako argudio gisa baliatzen dituzten komunikazio estrategiak aztertzea izango da helburu nagusia.

Jardunaldiaren helburu zehatzak:

- "Kirolak" gai orokorraren barruan urte honetan zehar jorratuko diren marko teorikoa, lan esparrua eta helburu zehatzak partekatzea eta adostea.
- "Kirolen" publizitate eta informazio tratamenduaren esparruan Sareak egindako lanari dagokionez (agentzien eta komunikabideen bitartez) zabaltzeko modukoak izan daitezkeen jardunaldiko edukien laburpena elkarrekin egitea.

2. 2018rako lan plangintza tematikoaren aurkezpena: kirol arloa publizitatean eta komunikazioan genero ikuspegitik

Idazkaritza Teknikoko (Kualitate Lantaldea) Itziar Camarak Sarearen 2018ko oinarrizko planteamendua, kronograma eta aurreko bileretako edukiak aurkeztu ditu (atxikitzen da: **Sarearen Planteamendua 2018 eu.ppt**).

Kode Deontologikoa eta **Autoregulazioak** Implementatzeko Sareak

Oinarrizko proposamena 2018

Gai esparru zehatz batean oinarritutako 3 jardunaldi urtean, gaien salortzeko hausnartzeko eta identifikatzeko hobekuntza arloei begira lanabesa eta erantzunak artikulatzeko.

A) LANERAKO URTEKO GAIAK...

- Sareko talde bakoitzaren gaia
- Urteko formakuntza (urteko oinaberrak)
- Jardunaldiaren dinamizazio teknikak

B) KODEEN IMPLEMENTAZIOA ERKUNDEETAN...

- Ikuspegi berriaren diseinua + bakoitzaren behararen arabera
- Kodea implementatzeko erremota kutsua
- Esperientziak – Sareko erakundeen kasu praktikak
- Komunikazio eta agentzien muntatzearen ondorioak urteko aurkezpena

C) SAREAREN DISEINUA, GARAPENA, KIDEAKETA, BULTZA ETA KUSGATASUNA...

- Sarearen egituraren funtzionamendua
- Elkarlanean parte hartzea
- Komunikazioaren erakundeak eta erakundeak
- Erakunde bakoitzaren berrikuntza bakoitzaren inguruko pertsonen laguntza
- Bakardasaren saihestu
- Jardueraren memoria eta garrantziaren proiektuak
- Erakunde berrien sarrera

Kode Deontologikoa eta **Autoregulazioak** Implementatzeko Sareak

2018ko hiru jardunaldiak

2018ko martxoaren 22a	2018ko ekaina	2018ko azaroa
Kirol arloak komunikabideetan eta publizitatean duen trataerari buruzko ezagutza sortzea	Tresna diseinatzeko tallerre eta kirol arloan genero ikuspegidun komunikazio eta publizitate edukiak diseinatzeko gomendioei eta erabilgarritasun praktikoei buruzko lana	Tresna aurkezteko eta zabalitzeko eta kirol erakundeekin, iragarleekin lan egiteko jardunaldiak
Hidaria: Clara Sáenz de Baranda Andujar		
Eragutza: formakuntza		Zabaldu eta sentsibilizazioa

Eragutza
erakundeak

3. 2018an zehar lan egingo duen talde operatiboaren aurkezpena

Tokikomeko –euskarazko toki komunikabideen sareko– Joxe Rojasek Kode Deontologikoaren Sareko lantaldearen helburuak eta funtzionamendua aurkeztu ditu (atxikitzen da: **Kode Deontologikoaren Sareko Lantaldea eus.ppt**).

**Kode Deontologikoaren
Sareko Lantaldea**

1. BILERA: 2018/02/13

LANTALDEARI BURUZ

Idea ona! Oso positiboki jozen da lantaldea sortzea, komunikabideak eta agentziek jardunaldiak zehazteko prozesuan parte hartze zuzena izatearen garrantzia azpimarratuz	Dinamika - Urteaz urte aldatzen joan 3 bilerak urtean, jardunaldiaren aurretik: otsaila, maiatza, urria + lan pertsonal puntualak, materialak, gaiak, proposamenak... baloratzen - Printzipioz, Bilbon	Eginkizunak - Jardunaldiaren formatu eta edukia finkatzea - Sarearen lantaldeko gaia proposatzea - Sarearen funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko estrategiak proposatzea - Publizitatearen eta komunikazioaren inguruko ikuspegi berria, iragarleekin, lan egiteko jardunaldiak - Sarearen lana garrantzitsua
--	---	---

4. Kirolak komunikabideetan duen tratamenduari eta kirol arloan oinarritutako publizitatea sortzeari buruzko hitzaldia

Clara Sainz de Baranda Andújar Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazio Saileko irakasleak kirol arloarekin lotutako publizitateaz eta informazioaz genero ikuspegitik egiten den tratamenduari buruzko hitzaldia eman du.

PUBLICIDAD, COSIFICACIÓN SEXUAL Y VIOLENCIA SIMBÓLICA

LA SOCIALIZACIÓN DE GÉNERO

CLARA SAINZ DE BARANDA ANDÚJAR – cbaranda@hum.uc3m.es

DEPARTAMENTO PERIODISMO Y COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL – INSTITUTO DE ESTUDIOS DE GÉNERO. UNIVERSIDAD CARLOS III DE MADRID

Ikusi hitzaldiaren bideoa: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/44751-red-medios-agencias-para-una-comunicacion-sexista-centrara-2018-tratamiento-mediatico-del-deporte>



Hitzaldiaren ostean, eztabaidarako tarte egon da; honako eduki hauei buruz hausnartu dute:

- Irudiak (argazkiak) elementu garrantzitsua izan ziren Clara Sainz de Baranda Andujarrek egindako ikerlanean. Kirol informazioetako sexualizazioak "gonbidatuetan" (normalean, gizonezko kirolariaren bikotekide, lagun edo jarraitzaile diren emakumeak) jartzen du arreta batez ere, eta ez hainbeste emakume kirolarietan.

Azterlan horrek dio, gainera, gonbidatu horiek emakumezko kirolariek baino ikusgaitasun handiagoa dutela komunikabideetako argazkietan.



'GONBIDATUAK'




- Komunikabide digitalek edo horiek berariaz sortutako online atalek hartu dituzte urteen ondorioz paperezko komunikabideetatik desagertzen joan diren eduki sexistak. Komunikabide digitaletan agertzen diren emakumeen % 50 baino gehiago "gonbidatuak" dira.
- Emakumezko kirol kazetari eta aurkezleen irudia eta profila (batez ere telebistan) aldatuz joan dira: gizartean ezarritako edertasun eredua lehenesten da; "top modelak" izan behar dira.
- Gaur egun, kirol komunikabideek sentsibiltate handiagoa dute kirol minoritarioekiko, baina ez da gauza bera gertatzen emakumeek kiroletan duten lekuari, irudiari eta ikusgaitasunari dagokienez.
- Emakumezko eta gizonetzko kirolarien arteko desberdintasunak erakusten dituen beste elementu bat da entrenatzaile, manager, teknikari... moduan jarduten duten emakumeen eskasia; aldiz, asko dira emakume kirolariak entrenatzen dituzten gizonak, eta, maiz, gainera, haiek baino protagonismo handiagoa hartzen dute.
- Asimetriak ere berdintasun ezaren funtsezko elementutzat hartzen dira. Horren adibide argia da, esaterako, emakumeei hain sarri galdetzea familiari buruz eta gizonen inoiz ez.
- Emakume kirolariek zailtasun erantsi bat dute: nola planifikatu goi mailako kirol ibilbidea eta amatasuna. Gai zaila da, eta komunikabideetan ez du tratamendu egokia izaten, ez baita ahalegin eta lan horren garrantzia nabarmentzen.
- "Kirola matxismoaren azken gotorlekua" dela ere adierazi dute, kirol kazetaritza ikuskizun hutsean oinarritutako saioetara mugatzen dela eta saio horiek, zorroztasun profesional gutxikoak izatez gain, argudio sinplez eta topiko sexistaz beteta daudela. "Legerik gabeko lurraldeak, oihana" direla esan dute.

- Emakumeen kirolak komunikabideetan lekua izan dezan, ohiturak sortu eta erreferente diren emakume kirolariak ezagutarazi behar dira. Bi egiteko horiek funtsezkoak dira informazioak ugaritzeko eta hobetzeko eta kirol jarduerak bultzatzeko, ez soilik gizonen artean (Mireia Belmonteren eta Carolina Marinen kasuek, esaterako, emakumeen artean igeriketako eta badmintoneko federazio lizentziak ugaritzeko balio izan dute).
- Baina arazoa ez da soilik erreferente diren emakume kirolarien eskasia edo ikusgaitasun murriztea; izan ere, Euskadin badira lehiatzen diren, maila guztietan irabaz zitekeen guztia irabazi duten eta, halere, komunikabideetan leku nabarmenik hartzen ez duten emakumeen kirol taldeak.
- Komunikabideetako erredakzioetako kirol sailetan arreta jarritz gero, honako alderdi hauek nabarmentzen dira:
 - o Erredakzioetan zalantzak izan ohi dira gai hauei buruz, eta beharrezkoa da prestakuntza jasotzea eta esperientziak ezagutzea.
 - o Emakumezko kirol kazetariak muga nagusi batekin egiten du topo; izan ere, federazio lizentzien % 20 baino ez dira emakumeenak, eta oso emakume gutxiri buruz komunika daiteke zer edo zer; hori are gehiago nabaritzen da herri kirolean. Horregatik, garrantzitsua da oinarria lantzea, emakume gehiago egon dadin kirola egiten eta federatuta.
 - o Kirol erredakzioak oso leku itxiak dira, eta oso zaila da lan egiteko eta informazioa tratatzeko moduak aldatzea. Gune horietan argumentu nagusia izaten da emakumeen kirola ez dela interesatzen, ez duela audientzia indize handirik lortzen.
 - o Bekei eta praktikei dagokienez, komentatu dute emakume kazetarien artean ez dagoela kirol sailean sartzeko bokazioa duenik, batzuetan oso espazio maskulinizatuak eta sexistak izaten direlako.

5. 1. tailerra: Adibideen eztabaidaren aurkezpena (Begirara iritsitako kexak)

Clara Sainz de Baranda Andujarrek kiroleko sexismoarekin lotutako informazio eta publizitate edukien adibideak aurkeztu eta komentatu ditu tarte honetan.

Komunikabide digitaletan aztertutako zenbait adibide ikus daitezke jarraian: besteak beste, sexualizazioa, emakumeen irudi estereotipatuak, asimetriak elkarriketarako galderetan eta izenik gabeko emakume kirolariak.



2015etik Begirara (Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea) kexa moduan iritsitako adibide batzuk ere komentatu dituzte.




Adierazi dute eduki horietako asko aldatu edo ezabatu egin direla egindako kritiken eta jarritako salaketen ondorioz.

6. II. tailerra: Jardunaldian egindako lanetik ateratako irakaspenak

Jardunaldiaren azken zatian aukera izan dute parte hartzaileek ateratako irakaspenak azpimarratzeko eta esku hartzeari eta lanari buruz sortu ahal izan diren zalantzei buruz hitz egiteko. Honako eduki hauek aipatu dituzte:

- Komunikabideetan, kirol erredakzioek oso maskulinizatuta jarraitzen dute; azken urteotan gutxien aldatu diren arloetako bat izan daiteke.
- Testuinguru honetan, nabarmendu dute beharrezkoa dela arlo horietan emakumezko erredaktore gehiago egotea eta talde horiek osatzen dituzten pertsonen genero ikuspegiari buruzko prestakuntza jasotzea.
- Clararen hitzaldiak agerian jarri eta datuen bidez erakutsi ditu orokorrean susmatzen diren errealitateak. Halere, erakunde eta gune batzuetan aurrera egin da kualitatiboki eta organikoki (sail orekatuak eta sentsibilitatearekin/genero ikuspegiarekin).
- Hurrengo jardunaldiei begira, eta urte honetarako egindako oinarritzko planteamenduarekin koherentzia mantenduz, tresna praktikoak sortzea eskatu dute. Edozein modutan, uste dute hitzaldian emandako adibideak oso grafikoak izan direla eta kazetariak, agian kontziente ez direla, sarri egiten dituzten akatsak erakutsi dituztela. Beste irakasgai nagusi bat izan da agerian jartzea idatzizko prentsaren eta prentsa digitalaren arteko zuloa eta aldea.
- Parte hartzaile batzuek adierazi dute kazetaritza jardunean badirela aldeak euskarazko eta gaztelaniazko komunikabideen artean. Lehenengoetan (txikiagoak eta esparru lokalekoak izan ohi dira) normalean ez da izaten hitzaldi honetan aurkeztutakoak bezain jokabide sexistarik.
- Hedabide txikien kasuan kirol arloan agenda propioa sortzeko aukera gehiago ikusten dituzte, bai komunikabidean agertzen diren kirol motak dibertsifikatzeko, eta baita emakume kirolariei buruzko informazioa hobetzeko ere.
- Era berean, oinarria lantzeko beharra ere aipatu dute parte hartzaileek, emakumeen artean kirol jarduera bultzatzeko; uste dute bestela ez dagoela "funts" nahikorik komunikabideetan emakumeen kirolaren garrantziak gora egin dezan.
- Kirol erredakzio eta sail askoren egunerokotasunean dagoen giro matxistari dagokionez ere, neurriak hartu behar direla deritzote, maila pertsonalean arduraz jokatzuz, txisteak, iritzi matxistak eta gisakoak transmititu, errepikatu eta zabaltu gabe.
- Kirol sailetako kazetariak aldaketa eragile izan daitezke eta izan behar dira.
- Laburpen gisa, esan dute orokorrean kirol kazetaritzan gertatzen dena modu argian erakusteko balio dezaketen bi termino daudela: asimetria eta infantilizazioa.



Bestalde, parte hartzaile batzuek jardunaldiko edukiak laburbiltzeko bururatu zaizkien tituluak aipatu dituzte. Adibidez, honako hauek:

- “El deporte sigue siendo uno de los bastiones machistas”
- “Plantando cara a la asimetría en la información deportiva”
- “Euskal Herriko hainbat komunikabidek komunikazio ez sexista bultzatzeko topaketa egin dute”

7. Jardunaldiaren itxiera. Eskerrak ematea eta hurrengo urratsak

Izaskun Landaik, Emakundeko –Emakumearen Euskal Erakundeko– Zuzendariak, eskerrak eman dizkie bertaratutako guztiei, eta 2018an zehar egingo diren prozesu eta bileretan parte hartzen jarraitzera animatu ditu.

Datozen egunetan bidaliko zaizkie parte hartzaileei asebetetze maila neurtzeko online galdetegia eta Sarearen esparruan sortutako dokumentazioa biltzen duen wikiaren esteka (<http://codigodeontologicocae.wikispaces.com/Presentaci%C3%B3n>).

